

Langileon lan baldintzetan atzera pausorik ez! Aurrekontu duinak hezkuntzarako, murrizketarik ez!

Gaur goizean STEE-EILASeko Kontseilu Nazionaleko 80 kide bildu gara Ibaetako campusean, bi gai jorratzeko. Lehenik, "Krisialdiaren aurrean hausnarketak eta proposamenak ezkerretik" gaia aztertu dugu, ekonomian adituak diren hiru hizlariren parte hartzearekin. Ondoren, "Negoziazio kolektiboa gaur egunean" eztabaidari ekin diogu, non irakaskuntzako langileen lan baldintzak negoziatzeko irizpide nagusiak finkatu ditugun, marra gorriak zertan ipini zehaztu dugularik.

Eginiko hausnarketan ondorio argiak atera dira. Hamarkadetan zehar eta borroka luzeen ondoren, gure aurrekoek baita geuk ere lortu ditugun eskubideak, gobernuek di-da batean desagertu arazi nahi dituzte, zor publikoa gutxitzeko eta ekonomia suspertzeko aitzakia merkeak erabiliz. Inoiz baino argiago ikusten ari gara, hemengo eta hango politika ekonomikoak aurpegirik gabeko merkatuen agindupean daudela eta ez langilearen, ezta gizartearen gehiengoaren zerbitzuan. Onartezina da, gehienon lan baldintzak eta bizi kalitatea, gutxiengo baten aberaste grina mugagabearen menpe egotea.

Maltzurkeria handiz, krisiaren errua guztiona dela sinestarazi nahi digute eta gainera, zorra ordaintzeko denok estutu behar dugula errepikatzen digute lotsarik gabe. Politika neoliberal eta atzerakoi horiek langileon aurka joateaz gain, zerbitzu publiko ahulagoak eta kalitate eskasagoak ekarri dituzte, besteak beste, bai osasun sisteman, baita hezkuntzan ere.

Honen haritik, Nafarroan azken hilabeteetan inposatutako murrizketen bide beretik, egunotan jaso dugu azken kolpea Lakuako Mahai Orokorreko berri txarrak entzutean. Jaurlaritzak oraingo honetan Arlo Publikoko langileoi ordain arazi nahi digu bere politika ekonomikoaren porrota, bere ezgaitasuna irtenbide sozialak bultzatzeko, bere borondate eza fiskalitate progresiboa ezartzeko. Erretiroa, soldatak, enplegua, gaixotasun bajak, ordezkapenak ... atal guztietan erasotzen ari dira, ez dute mugarik. Lan eskubideetan inboluzioa ezarri nahi dute, baina ez dugu onartuko! Ezin digute ukatu urte luzeetan langileok lortutako eskubideak.

Eraso hauei guztiei stop egiteko honako irizpideak jorratzea adostu dugu:

1. Onartezina da krisialdia sortu ez dugunoi, langileoi ordain araztea.
2. Diru publikorik ez banketxeentzat eta bai kontrol publiko zorrotza.
3. Fiskalitate progresiboa ezarri. Zenbat eta errenta maila altuagoa izan, gero eta zerga ordainketa handiagoa. Aberastasuna egon badago, gaizki banatuta, ordea.
4. Zerbitzu publikoen defentsa sutsua antolatu, gizarte eskubideak jokoan baitaude herritarren gehiengoarentzat.
5. Aurrekontu aurrerakoiak osatu, gastu soziala handituz. Herritarren gehiengoarentzat gizarte eskubideak bermatu eta eskusioa saihestu.
6. Hezkuntzarako BPGren %7a aurrekontuetan, Europako batz bestekoan bezala. EAEn nahiz Nafarroako aurrekontu murriztaileak salatu.
7. Haur-eskoletatik unibertsitateraino murrizketarik ez onartu. Ez zerbitzuaren kalitatean, ezta langileon lan baldintzetan ere.
8. Funtzio publikoko langileok ez dugu zertan ordaindu Jaurlaritzaren politika ekonomikoaren porrota. Negoziazio kolektiborako eskubide ukaezinari eutsi.
9. Irakaskuntza publikoa hezkuntza sistemaren ardatz. Hezkuntza oinarrizko eskubidetzat jotzen dugulako eta horren bermerik tinkoena Euskal Eskola Publiko sendo eta kalitatezkoa delako.
10. Hezkuntza ez da gastua, gizartearen garapenerako inbertsioa baizik!